



ARGIBIDEAK eta IZEN-EMATEAK

Asteartetik larunbatera: 10:00 -13:00 eta 16:00-18:00.
Ilgande eta jaiegunetan: 10:00-13:00.

sanpedrokoingurumen heziketarakomuseoa

San Pedroko monasterio zaharra
Errotazarko kalea, zk.g. 31014 Iruña
948 149804 / Faxa: 948 123721
museoeducacionambiental@pamplona.es
www.museoambientalpamplona.com



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



**IRAUNKORTASUNAREN
IKASGELA
Tximeletak.
Lepidopteroen
garrantzia, kudeaketa
eta kontserbazioa
2008KO APIRILA**



sanpedrokoingurumen
heziketarakomuseoa

IRAUNKORTASUNAREN IKASGELA

Tximeletak. Lepidopteroen garrantzia, kudeaketa eta kontserbazioa.

Egunera arte, zientziak izaki bizidunen ia bi milioi espezie deskribatu ditu. Bioaniztasun zabal horren baitan, kopururik handiena intsektuen multzoari dagokio; izan ere, 800.000 espeziezik gora deskribatu ditu zientziak, eta beste hainbeste bide daude aurkitzeko. Lepidopteroek, hau da, tximeletak, intsektuen multzo garrantzitsua osatzen dute, 120.000 tximeleta-espeziezik gora deskribatu baitira. Hala metamorfosiaren fenomenoak –beldarretik tximeletara– nola hainbat espezieen ikusgarritasunak lilura sortu digu betidanik gizakioi. Hala ere, bioaniztasunari eusteko ahaleginek ornodunak dituzte jomuga batez ere: ugaztunak, hegaztiak, narrastiak... eta hori, gehien-gehienetan, informazio faltagatik gertatzen da, orngabeak aztertzea zailagoa delako. **Hori horrela, Iruñeko Udalak jende guztiari zuzenduta dagoen ziklo hau antolatatu du, tximeleten eta haien kontserbazioaren berri emateko eta horren gainean sentsibilizatzen.**

Apirilak 25, ostirala

Iniciación al estudio de las mariposas
Hitzaldi-lantegia. Zerynthia elkarteak.
Ordua: 19:00.

Lepidopteroen mundurako haspenak, sailkapena eta bioaniztasuna. Ikerketa-teknikak.



Apirilak 26, larunbata

Landa-irteera, Izagako Harkaitzera (Europar Batasunaren Intereseko Lekua). Irteera: 10:00etan, aurrerago zehaztuko den lekuan. Itzulera: 14:30ean. Joan-etorria parte-hartzaileek beren kabuz egin beharko dute.

Landa-irteera bat egingen dugu, eta ibilbidean zehar aurki daitezkeen ekosistema ezberdinetako lepidopteroen espezieak aztertuko ditugu; bide batez, tximeletak bere habitatean aztertzeke teknikak ikasiko ditugu.

Biodiversidad de las mariposas en Navarra.

Hitzaldi-solasaldiak. Zerynthia elkarteak. Ordua: 17:00

Nafarroan dauden era askotako lepidopteroen espezieak, aztergai. Eskualde biogeografiko bakoitzak dituen espezieak aztertuko ditugu.

Mariposas emblemáticas de Navarra.

Zerynthia elkarteak. Ordua: 18:30

Nafarroan hainbat ezaugarri dela bide –urritasuna, babes-maila, ziklo biologikoa, banaketa, etab.– enblematikoak diren espezieak. Mehatxuak eta horiei lotutako arazoak. Kudeaketa eta kontserbazioa.

Intsektuak, tximeletak eta beren mundua.

Haurrentzako lantegia. Zerynthia elkarteak. Bi txanda: 17:00etan eta 18:30ean.

Haurrendako lantegi honetan intsektuen mundua aztertuko dugu, eta, bereziki, lepidopteroena eta bere metamorfosia, beldarretik tximeletara.



Bidezko merkataritza.
2007ko azaroa.

Apirilak 27, igandea

Landa-irteera, Alduide mendira (Europar Batasunaren Intereseko Lekua).

Irteera: 10:00etan, aurrerago zehaztuko den lekuan. Itzulera: 14:30ean.

Joan-etorria parte-hartzaileek beren kabuz egin beharko dute.

Landa-irteera bat egingen dugu, eta ibilbidean zehar aurki daitezkeen ekosistema ezberdinetako lepidopteroen espezieak aztertuko ditugu; bide batez, tximeletak bere habitatean aztertzeke teknikak ikasiko ditugu.



Saio Mikologiako.
2007ko urria.



Xerolorezaintza.
2008ko martxoa.

Erakusketa: Bizirik dauden tximeletak eta tximeleten argazkiak.

Ordutegia: apirilaren 25ean (ostirala), 16:00etatik 19:00etara; apirilaren 26an (larunbata), 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta apirilaren 27an (igandea), 10:00etatik 13:00etara.

Tximeleta aleak bizirik, eta Zerynthia elkartearen kide Juan Carlos Vicente Arranzen argazkiak, ikusgai, intsektu horien berezitasunak eta edertasuna bertatik bertara hautemateko.

Horrez gain, hainbat dokumentalen emanaldiak izanen dira, intsektuei buruz, larunbat eta igande goizetan.

San Pedroko Ingurumen Heziketarako Museoa Doaneko ikastaroa. Leku-kopurua mugatua da. Landa-irteeretan parte hartzeko, lehenago izena eman behar da. Gainerako jardueretarako sarrera libre izanen da, leku guztiak bete arte.